

II - ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Behin betiko onespina ematea eraikuntzako udal ordenantzari

Udalbatzak, 2019ko otsailaren 21eko ohiko osoko bilkuran, hasierako onespina eman zion arau subsidiarioen zenbait alderdi puntual interpretatzeko eraikuntzako udal ordenantzari. Horri buruzko iragarkia ALHAOren 28. zenbakian eman zen argitara, 2019ko martxoaren 6an, baita Korporazioaren iragarki taulan ere, eta jendaurrean ipintzeko hogeita hamar egun balioduneko epealdia ireki zen, iradokizunak eta erreklamazioak aurkezteko.

Jendaurreko epealdi hori igaro eta inolako erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez delarik, Toki Araubidearen Oinarrien Legeak 49. artikuluan xedatzen du erabakia, ordura arte behin-behinekoa dena, behin betiko onartutzat eman beharko dela. Legezko ezarpen hori osatzen da legezko testu berak bere 70. artikulua 2. paragrafoan jasotakoarekin. Ordenantza hau indarrean sartuko da behin betiko onetsi eta ALHAOn oso-osorik argitaratu ondoren eta Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko Legeak 65.2. artikuluan ezarritako epea gainditu ondoren; hala, indarrean sartzen denetik aplikagarria izango da eta indarrean jarraituko du haren aldarazpena edo beren beregiko indargabetzea erabakitzen ez den bitartean.

Hona hemen ordenantzaren testu osoa:

Lehenengoa. Xedea eta aplikazio eremua

1. Ordenantza honen xedea da zehatz-mehatz definitzea “mantendu beharreko eraikinak” eta “ordeztu beharreko eraikinak” izeneko kategoriak, eta mantendu beharreko eraikinen garaiera neurtzeko irizpideak bateratzea SUR-1 bizitegi lurzoruan, neurtzeko modua homegeneizatzeko, edozein dela ere estalki edo teilatu hegala mota eraikinen gehienezko bolumena ez dadin izan ASetan grafikoki adierazitakoa baino handiagoa.

2. Herrigune historikoko ohiko etxebizitza eredia egungo bizigarritasun beharren errealitate egokitzea, birgaitu daitezkeen eraikinen eraberritzea sustatzeko eta herrigune historikoaren betiko itxura mantentzeko.

3. Ordenantza honetan jasotzen diren arauak berreraikitze obretan (eraikitakoaren aldaketa sakona dakarrenean), erreforma obretan eta handitzeko obretan aplikatuko dira, Ondare Urbanizatu eta Eraikia Birgaitzeko Jarduketa Babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren I. eranskinean jasotakoetan, alegia.

Bigarrena. Eraikinen tipologia

Ordenantza honen ondorioetarako, bi eraikin mota dago, mantendu beharreko eraikinak eta ordeztu beharreko eraikinak. Biek bizitegirako erabilera dute.

1. Mantendu beharreko eraikinak

Kontserbazio egoera onean dauden eraikinak dira, mehelinetik atxikita dauden eraikinen ohiko tipologia dutenak. Ezaugarri hauek dituzte:

- Egitura: Karga hormen egitura nagusiak barruko egurrezko bilbadura dauka.
- Fatxadak: Harlanduzko edo harlangaitzezko fatxadak, emokadura tradizionalen akabe-rekin.
- Estalkia: Bi isurki edo gehiagokoa, zeramikazko teila gorriekin.

– Antzintasuna: 50 urte baino gehiagokoa. Eraikuntza urtetzat hartuko da Eusko Jaurlaritzak Eraikinen Ikuskapen Teknikoa egiteko datu basean jasota duena.

– Aurri egoera: Ez dira kontuan hartuko Arau Subsidiarioen 57. artikulua eta hurrengo arabera aurri egoeran dauden eraikinak.

2. Ordeztu beharreko eraikinak

Arau Subsidiarioen 206. artikuluan katalogatuta ez dauden eraikinak, eta “Mantendu beharreko eraikinak” kategorian sartzeko baldintzak betetzen ez dituztenak.

Hirugarrena. Kontzeptuen terminologia

1. Mantendu beharreko eraikinak garaiera neurtzea, jatorrizko kotaren gainetik: irizpide orokorra da fatxada lerroaren (edo horren luzapena, hegal horizontalik badago) eta estalkiaren azpiko aldearen arteko elkargunea. Neurtzeko modu hori ASetan grafikoki zehaztutakoarekin bat etorri beharko da. Fatxadarekiko elkarzuta den hegal horizontalaren garaieratik abiatuta, kontuan hartu beharko da hegalaren azpiko neurketa fatxada eta estalkiaren arteko elkargunearen neurketara eramateak dakarren gehikuntza, hegala metro batekoa izanik eta malda % 50ekoa (ASetan baimendutako gehienezko neurriak).

2. Gehieneko garaiera, jatorrizko kotaren gainetik: egungo garaiera.

3. Gehieneko garaiera handitzea, jatorrizko kotaren gainetik: garaiera aldatzen duten eraberritzeak onartuko dira, zuzenketa 50 zentimetrotik gorakoa ez bada, eta dagoen garaierak ez baditu eraikinaren bizigarritasun baldintza egokiak ahalbidetzen; beti ere, fatxadaren planoan dagoen gehieneko garaiera gordeta, lehen paragrafoan zehazten den bezala, eta behar izatekotan, garaiera zuzenketan gehikuntza eginda.

4. Gehieneko ingurutzailaren kontzeptua, definizio grafikoa erreferentziatzen hartuta (hegaletik fatxadara dagoen gehieneko distantzia eta estalkiaren gehieneko malda); oro har, gehieneko garaiera zehazteko irizpide bezala erabiliko da, hegalen eraketa ez egoteko era grafikora mugatuta.

Laugarrena. Indarrean jartzea

Ordenantza hau indarrean jarriko da apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65. artikulua aipatzen duen epea igarotzen denean.

Lapuebla de Labarca, 2019ko apirilaren 26a

Alkatea

MAIDER MURILLOTREVIÑO